

DONOSTIAKO APEZPIKUARI BISITA

J. L. Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea

Martxoaren 17an, arratsaldeko 5etan, Donostiako Gros auzoan Apezpikutegiak duen egoitzan, Juan Mari Uriarte, Donostiako apezpiku berriarekin bildu da Euskaltzaindiko Zuzendaritza. Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Patxi Goenaga, idazkaria; Jose Antonio Arana Martija, diruzaina; Juan Mari Lekuona, Donostiako ordezkaria eta Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea.

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak egiten du bere sarrera, adieraziz nola Euskaltzaindiak ohitura duela, agintariekin, bai zibil eta bai elizakoekin, kargu berrizatzea egiten denean, bisitaldia egitea. Hala egin zitzaion bere garaian, Jose Maria Setien berari ere eta geroztik Sebastian Iruñeko artzapezpiku berriari, Bilboko Ricardo Blazquezi eta Karmelo Etxenagusia laguntzaileari eta oraingo honetan, berari. Euskaltzaindiak uste baitu hizkuntzaren akademia detetik, elizak duen hizkuntzarekiko garrantziagatik, zer esanik eta zer eskainirik ere. Euskaltzaindiak dituen batzorde nagusien eta lanen berri ematen dio. Juan Mari Uriarte apezpikua pozik agertu da bisita honekin eta Gipuzkoako elizaren izenean kolaboratzeko prest agertu da eta Euskaltzaindiarekiko, ekin-tza, xehetasun, harreman eta beste zenbait galdera egiten du. Itzulpen kontu eta beste ere aipatzen da, hala nolar, Vatikanoko II. Kontzilioaren dokumentuak oraindik ez daudela euskaratuta eta behar-beharrezkoak lirakeela.

Jarraian, Jose Antonio Arana Martijak, Patxi Goenagak, Juan Mari Lekuonak eta Jose Luis Lizundiak solasaldian parte hartzen dute euskaltzainburuarekin eta apezpikuarekin batera.

Azkenik, liburu hauek ematen zaizkio Juan Maria Uriarteari, *Testamendu Berria, Linguae Vasconum Primitiae, EHHako Antologia* eta *1998ko Oroitidazkia*.

Irakaskuntza mailan Euskaltzaindiak euskara batuarekiko duen atxikimendua ere adierazten dio Euskaltzainburuak, horrek ez duela esan nahi euskalkiak ez dituela babesten, alderantziz baizik, bakoitzari bere tokia utziz.

Euskaltzaindiak dituen harremanak direla eta unibertsitatekin, bai Euskal Herriko Unibertsitate Deustuko, Nafarroako biak eta Bordel eta Pauekoen berri ere ematen dizkio. Zenbait erakunde aipatu dira, hala nola, Eusko Ikaskuntza, Labairu eta beste.